

Ipuinak eta liburuak

Amaia Arrieta: "Harrera-familieta dauden haurrak identifikatuta sentituko dira Xaturrekin"

2020-09-20 / GURASO



Beatriz Yubero eta Amaia Arrieta, liburuaren aurkezpen ekitaldian

Harrera-familieta dauden haurrei zuzendutako bi liburu egin dituzte Amaia Arrietak eta Beatriz Yubero: 'Bi familia Xaturrentzat' eta 'Xatur eta tximeleta'. Amaia Arrieta marrazkiez arduratu da, eta bere egunerokotasuneko bizipenak ere txertatu nahi izan ditu Xaturren kontakizunetara

Zer dela eta erabaki zenuten harrera-familieta gaia jorratzea?

Lehenik eta behin esan nahi dut ni harrerako ama naizela, eta Beatriz psikologoa da. Biok ikusten genuen hutsune nabarmen bat haurrentzako literaturan gai horri dagokionez. Gainera, Beatrizek behin istorio bat idatzi zuen, haurrei familia aldaketa bat zer den azaltzeko. Bere hitzekin egin zuen, ahal zuen bezala, eta hobeto eta irudi politekin egiteko gogoz geratu zen. Horrela ekin genion. Harremanetan jarri eta Xatur sortu genuen.

Nola kontatu nahi izan duzue harrera-familieta haurrek bizi duten prozesua?

Askotariko familiak eta errealitateak daudela azaldu nahi izan dugu, baina era berean, denak antzeko arazoak dituztela. Horretarako dagoeneko bi liburu egin ditugu. Lehenengoa *Bi familia Xaturrentzat* izenekoa. Harrerako haur batek bizi ditzakeen egoerak biltzen saiatu gara. Mezu nagusia hurrengoa da: bi familia ditu Xaturrek; biologikoa –beti ondoan izango duena– eta harrerakoa –zaintzen duena eta harekin bizi dena–. Alde positibotik begiratu dugu, hau da, bi familia ditu Xaturrek, eta beraz, komunitate zabalagoa.

Metaforak erabili dituzue, nolabait istorioa kontatzerakoan, ezta?

Bai, hori da. Ekaitzak Xaturren etxea hondatzen du, eta horrek eragiten dituen egoerak kateatuz, protagonista untxi jaun-andreekin doa bizitzera. Gurasoen eta anai-arreben falta du, baina era berean, apurka-apurka familia berria maitatzen hasten da. Azken finean, egoera batek familia biologikoa "hausten" du, eta Xatur beste familia batekin bizi da. Eta horrez gain, islatu nahi izan dugu denbora behar dela "gordeleku" edo familia berri bat eraikitzeko. Haurrak Xaturren istorioarekin identifikatuta sentitzea nahi genuen, eta dituzten emozioei hitzak eta irudiak jarri nahi izan dizkiegu, modu erraz batean.

Eta tximeletaren ipuinak ildo bera jarraitzen du?

Bai. Xaturrek goizean tira-birak ditu amarekin eta haserre doa eskolara. Bidean negarrari ekiten dio, eta tximeleta batekin egiten du topo. Tximeletak esaten dio ez dela ezer gertatzen negar egiteagatik, eta harreman polita sortzen da haien artean. Istorioak eta sekretuak elkarbanatzen dituzte, edozein umek bezala.

Eta ipuin gehiago egin jarraitzeko asmorik baduzue?

Bai, argitaletxekoei asko gustatu zitzaion gaia eta bilduma bat egitea proposatu digute. Hala, sei bat ipuin egin nahi ditugu Xaturren gorabeherak kontatzeko; betiere, harrera-familieta gaia ardatz hartuta. Guretzat aukera paregabea da, istorio gehiago kontatzeko.

Ari zarete horretan dagoeneko?

Hirugarrena lantzen ari gara, eta laugarrena laster egongo da. Besteak beste, basoko istorioak kontatuko ditugu, eta baita Xaturren anai biologikoen bizipenak ere. Pertsonaia gehiago ezagutarazteko erabiliko ditugu ipuin berriak

Marrazkiak egin dituzu... Nolakoak dira eta zer iradoki nahi izan duzu?

Batez ere koloreen bidez transmititu nahi izan dut. Arte ederretako ikasketak egin nituen eta semearekin zaletasuna berrartu dut. Koloreak asko gustatzen zaizkit, eta uste dut haurrek nahiago dituztela marrazki sinpleak; eta koloretsuak badira, hobe. Gustagarria izan behar da...

Bestetik egin behar izan dudana beste lan bat protagonista sortzea izan da: bere espresioa, nortasuna...

Zein harrera izan dute liburuek?

Oraindik goiz da balorazio orokor bat egiteko, baina jaso ditugu lehenengo erantzunak. Harrerako haurrekin lan egin duten teknikariek erabili dituzte dagoeneko Xaturren istorioak eta haurrak oso identifikatuta sentitu direla esan digute. Hortaz, oso pozik gaude, orain artekoarekin.

Egia da ez dela garirik onena liburuak kaleratzeko. Pandemia sasoi honetan liburutegiak eta bestelako espazio batzuk erabilera mugatua dute, eta horrek zaildu egiten du dena, baina halere, itxaropentsu gaude.

Pertsonalki nolakoak izaten ari da prozesua?

Aitzindari samarrak gara gai hau haurrentzako literaturan lantzen, eta eman diguten aukera ikaragarria da. Bizitatik ikasten ari gara, etengabe, eta bizipen pertsonal asko eraman ditugu liburuetara.

Orain, ahal dugun esparru guztietara eraman nahi ditugu Xaturren istorioak: eskoletara, adingabeentzako harrera-zentroetara, familieta...



< AURREKO ARTIKULUA | HURRENGO ARTIKULUA >

Iruzkirik ez "Amaia Arrieta: "Harrera-familieta dauden haurrak identifikatuta sentituko dira Xaturrekin"

Zure iritzia partekatu nahi duzu?

Zure eposta ez da argitaratuko. Derrigorrezko eremuak * bidez markatuta daude.

Utzi erantzuna

Zure iruzkinaren testua hemen ... *

Izena *

Eposta *

Website

Gorde nire izena, emaila eta webgunea bilatzaile honetan komentatzen dudana hurrengorako.

Bidali

KONTAKTUA

Izena E-posta

Idatzi hemen zure mezua...

Bidali

JARRAITU GAITZAZU



EGILEAK



BABESLEAK

